

MERKATU SEGMENTAZIOA

Gure bezero objetiboak dira:

Bizkaiko Foru Aldundia:

- Bizkaibus: Gaur egun 104 linea dauzka. Bizkaiko udal herri guztietara heltzen da. 29 milioi bidaiari garraiatu zituen pasaden urtean.



- Metro Bilbao: Hiru linea dauzka, L1, L2 eta L3. L1 linea, Plentzia-Etxebarri, L2 linea, Kabiezes-Basauri eta L3 linea, Kukullaga-Matiko (Eusko Trenerekin konexioa dauka). Urtean, 91 milioi inguru bidaiari garraiatzen ditu.



Bilboko udaletxea:

- Bilbobus: Bilboko hiri garraioaren udal zerbitzua, gaur egun, 44 linea ditu eta 9 auzolinea eta 8 gautxori. 16 milioi pertsona eraman zituen iaz. Gaur egun 141 autobus osatzen dute flota eta zerbitzuek 525 geraleku ditu.



- Proiektu hau ondo ateratzen bada, gure asmoa, Bilbotik hasia eta hedatzen joatea da. Horregatik, Eusko Trenetik hasiko genuke hedatzen:

- *Eusko Tren (Metro Bilbao):*
Eusko Jaurlaritzaren eskuetan dago. 4 linea nagusi ditu, E1, E2, E3 eta E4. E5 eranzkina eta L3 zerbitzua barne hartzen du. 41 milioi bidaiari inguru hartu dute Eusko Trenea azken urtean.



- ★ Laburbilduz, uste dugu erabiltzaile potentzial handia dagoela (pertsone asko hartzen dutelako garraiobide hauek) eta beharra ikusten dugu hori azkartzeko eta hobetzeko.